



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2014ko maiatzak 7ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **I. Atala. Faktura elektrikoa optimizatzea:** Esetek-en arduradunek “Faktura elektrikoa optimizatzea” proiektuaren lan-plana eta 7 udalerrri parte-hartzaileen diagnostikoak aurkeztu dituzte.
- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Garbiketaren Europako jardunaldia; 1.2. Iraunkortasun irizpideak aintzat hartzen dituen erosketa eta kontratazio zerbitzuari atxikitzea; 1.3 Tokiko Agenda 21en jarraipen planaren bilerak; 1.4. Eskolako Agenda 21.
- **2013ko memoria:** Balioztatu egin da.
- **10. urteurrena:** Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen 10 urtetako txostena eta prentsa-oharra datozen egunotan bidaliko dira, argitaratu aurretik onartu daitezten.
- **5. edukiontzia eredu-laguntza eskatzea:** Proposatu da 10 eguneko epean edukiontzia, poltsa konpostagarriak, etxeko ontziak, giltzak eta autokonpostagailuak eta birringailuak erosteko eta herritarrek informatzeko Planerako BFaren diru-laguntza eskaerari buruzko jarrera ager dezaten falta diren udalek.
- **Kontratuak elkartzeko laguntza tekniko:** Egindako kudeaketen berri eman da. Honakoa proposatzen da: 1) babeserako laguntza teknikorako barruko eta kanpoko finantzaketa argitzea; 2) aholkularitza kontratatzeke lehiaketa prestatzea; 3) hainbat lehiaketak prestatzea: 5. edukiontzia biltzeko zerbitzua; konpostagailuak, edukiontzia, giltzak, poltsak eta ontziak erostea; eta komunikazioa.
- **Kontratuak elkartzeko lehentasunak:** lehentasun eta/edo eskari handiena duten zerbitzuak zein diren adieraztea proposatzen da.
- **Aktibatu zaitez +:** hainbat gairi buruzko informazioa eman da: kanpaina, erabilitako komunikazio-ekintzak, lortutako helburuak eta helburuak lortzeko neurrien proposamenak (udalerrri bakoitzeko familien %2).
- **IetaLPS laguntzak:** planteamenduaren aurrerapena aurkeztu da, udal bakoitzaren bakarkako eskaerak eta eskualdeko bulegoaren eskualde-eskaerak udalerrien interesaren arabera bideratzeko asmoz.
- **Ugaoko Sare Berdea bisitatzea:** ekainak 12, osteguna, 12:00etan, gutxi gorabehera, Herriaren Enparantzan, Batzordea bukatu ostean. Arropa eta oinetako egokiak eramatea gomendatzen da.
- **Euskadiko Biodibertsitatearen Gutuna:** Gutuna sinatzea onartu da hala nola albistea hedatzea maiatzaren 22an, Dibertsitate Ekologikoaren Nazioarteko Egunean, dibulgaziozko prentsa-ohar bidez.
- **Batzordearen hurrengo bilerak:** ekainaren 12an, osteguna, 09:00etatik 11:00ak arte. Jarraian Ugao-Miraballesko Sare Berdera egingo da visita. Hurrena, uztailak 17an, osteguna, 09:00etatik 11:00ak arte.